

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	SPRI, Enpresen Garapenerako euskal agentzia
2. Sektorea:	Administrazio publikoa - Industria
3. Langile kopurua:	72
4. Webgunea:	www.spri.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko erakundea da, euskal industria bultzatzea helburu duena. Digitalizazioa, Ekintzaitza, Ikerketa eta Garapena, Berrikuntza, Kluster politika, Zibersegurtasuna eta Trantsizio digital jasangarria dira SPRIren lan-ildo estrategikoak. SPRI Taldeko kide diren Arrisku Kapitala, Basque Trade & Investment, SPRILUR eta Euskadiko Parke Teknologikoak kontuan hartuta, Finantzaketa, Nazioartekotzea eta Azpiegiturak ere gehitu behar dizkiogu aurreko zerrendari. Lan-ildo hauek bultzatzeko enpresei zuzendutako laguntza-programak kudeatzen ditu Sprik.</p> <p>Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU programa (2020-2024) eta bertatik eratorriko diren planak dira SPRIren Kudeaketa Planaren esparru orokorra. Programak bi ardatz bertikal ditu: batetik, Ekonomia suspertzeko ardatza eta, bestetik, enplegua dinamizatzeko ardatza. Bi ardatz horiek 12 jarduera-politikaren bidez garatzen dira, eta horiexek osatzen dute ekonomia eta enplegua berreskuratu eta suspertzeko neurri eta tresnen erreferentzia-esparrua, 2024ra arte garatuko dena. Bada hirugarren ardatz bat ere: enpleguaren kalitatea eta genero berdintasuna.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Miren Jasone Aretxabaleta Osa
Helbide elektronikoa:	jaretxabaleta@spri.eus
Telefonoa:	944037068 - 607084538

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	EUSKARA SARIAK, egindako ahalegina aitortzeko modu bat
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Zer da.- 2015.urtean abiarazitako ekimena da, Euskara Planaren barruan aurreikusitakoa, urtean zehar euskararen alde jardun edota hizkuntza profila lortu duten pertsonak saritzea da helburua.</p> <p>Zertan datza.- Hasieran Euskara Batzordea zen sariak erabakitzen zituena. 2018tik aurrera berriz, lankideen esku utzi genuen erabakia: mezu baten bidez jakitera ematen dugu Euskara Saria jasotzeko proposamenak egiteko epea zabaldu dela; lankide bakoitzak pertsona bakarra proposatu dezake eta bere proposamena arrazoitu egin behar du. Aurreko urteetan euskara saria jaso dutenen zerrenda ere eransten da mezuan, hauek ezin baitira berriro proposatu. Proposamen gehien jaso duten bi pertsonak saritzen dira, modalitate honetan. Beste modalitatean, hizkuntza profila lortu duten guztiek jasotzen dute saria.</p> <p>Proposamenak bidali dituzten lankideen artean otzara bat zozketatzen dogu.</p> <p>Gabonetako topaketan egiten da sarien banaketa, aurrez aurre 2019ra arte eta online 2020 eta 2021ean.</p> <p>Onurak – Emaitzak.- Jendearentzat oso pozgarria da lankideek norberaren izena proposatzea. Baita profila lortzeko egindako ahalegina sarituta ikustea ere. Sarien banaketa Zuzendari Nagusiak eta Sailburuak egin ohi dute.</p> <p>SPRI TALDEKO 27 lankidek jaso dute Euskara Saria 2015-2021 bitartean, hauetako 10 hizkuntza-profila lortzeagatik.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Hona hemen 2021eko abenduan bidalitako mezua:

EUSKARA SARIAK



PREMIOS DE EUSKERA

Dagoeneko abenduan sartuta eta Gabonak ate-joka, aurtengo **Euskara Saria** nortzuk jasoko duten erabakitzeko ardua iritsi da.

Dakizuen bezala bi saritu mota daude: bat profila lortu duena; bestea lankideek proposatutakoa. Horrenbestez, 2021. urtean gure artean euskararen erabilera sustatu eta euskara sustatzeko lana egin duen lankidearen izena proposatu behar duzue.

Arauk zeintzuk diren gogorarazten dizuegu:

- Bakoltzak izen bat baino ezin du proposatu.
- Lankide hori proposatzearen arrazoia azaldu.
- Ezin da aurreko urteetan Euskara Saria jaso duen inor proposatu (hemen duzue orain arte saritutakoen zerrenda).
- Izena proposatzeko **epea gaur hasi eta abenduaren 17an bukatuko da**.
- Mezua bidali helbide honetara: euskara.plana@spri.eus
GAIA: Euskara Sariak 2021
- Parte hartzen duzuenon artean **opari bat zozketatuko dugu**.

*Estamos ya en diciembre, con la Navidad a la vuelta de la esquina y ha llegado la hora de decidir quiénes van a recibir los **Premios de Euskera**.*

Como sabéis existen dos modalidades de premio: la primera premia a la persona que ha conseguido el perfil lingüístico; la segunda, premia a la persona propuesta por sus compañeras/os. Así pues, abrimos el plazo para que propongáis a aquella persona que, en vuestra opinión, ha trabajado en promocionar el uso del euskera entre nosotras durante el 2021.

Os recordamos cuáles son las normas:

- *Solo se puede proponer un nombre.*
- *Junto con el nombre, la razón por la que proponemos a esa persona.*
- *No se puede proponer a nadie que haya recibido el premio en años anteriores (adjuntamos la lista de los premiados).*
- *El plazo para presentar una candidata/un candidato **terminará el día 17 de diciembre**.*
- *Enviar un mensaje a: euskara.plana@spri.eus ASUNTO: Euskara Sariak 2021*
- *Entre las/los participantes **sortearemos un regalo**.*

Aurreko urteetan Euskara saria jaso dutenen zerrenda / Listado de quienes han recibido el premio en años anteriores.

2021eko sariak



2019ko sariak



2018ko sariak

